



# Solaburu

etxebizitza

Aldacrak: Eperrena  
Ahozkoa: Soláburu / Epérrena

*“... la casa titulada Solaburu...  
sita en la cofradía de Murgoitio  
de la Anteiglesia de Berriz, es  
de una vivienda compuesta  
de un piso bajo con su cocina,  
cuarto y cuerdas... de principal  
con sus cuartos, camarote y  
pajares,... contiene con inclusión  
del horno, zagan y un pequeño  
campo libre, ochenta y ocho  
y medio estados o tres áreas y  
treinta y siete centiáreas...”  
DJE 4/246 or. (1881)*



43° 9' 35"

2° 33' 39"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

*Solabururen* tontorpean aurkitzen den baserriak aldaketa gutxi jasan ditu dokumentazioan jasotako izenetan. Bizkaiko su-erroldean *Solaburu* agertzen zaigu lehenbizikoz (1704 eta 1796), eta inolako aldaketarik gabe dokumentatzen da hurrengo mendeetan ere: *Solaburu* (1881, DJE, 4/ 246. or) eta *Solaburu* (1967, BUA, CE). Berriztarren artean, *Soláburu* eta *Epérrena* formak dira erabilienak ahozko transmisioan.

XVII. mendeko eskemari jarraitzen badio ere, XIX. mendean altxatu ei zuten baserria. Etxe apala eta simplea da. Hiru gorputzak ondo baino hobeto igartzen dira: albokoetan leiho bana du solairu bakoitzean, baita erdikoan ere. Honetan berezia da atartearen errematea, egurrezkoa, harlanduzko janben gainean. Harlangaitza da nagusi eta leihoetako erremateak egurrezkoak dira, beranduago zabaldutakoetan ezik. Egurrezkoak dira ere teilatuaren hegalari eusteko jarritako besoak.

toponimia

Ajangizko eta Mendatako herrietan ere, baditugu Solaburu izeneko etxeak. Izenaren osagaiak argiak eta gardenak dira: "solo", konposatuetan sola bihurtzen dena, eta "buru", toponimian 'gainean' adiera izaten duena. Izen zaharra da, eta garai batean deitura ere izan zen. 1617an Done Joanes elizako erroldetan, Petronilla Solaburu ageri da, eta urtebete beranduago Santuru Solaburu. Azken hori oso interesgarria da euskal izenaz bataiatu zutelako, ohikoa zenaren kontra.